

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Epea zabaldu da kultur sektoreko pertsonak eta enpresek Mekna adierazpena eska dezaten

*Bereizgarri horrek finantzaketa pribatua lortzeko eskubidea emango die Kultur Mezenasgoko Lege berriaren bidez, eta aipatutako legeak pizgarri fiskalak ematen dizkie jarduera horiek diruz laguntzen dituztenei*

Lunes, 04 de mayo de 2015

Maiatzaren 1etik 31ra epea zabaltzen da kultur proiektu eta jarduerak egiten dituzten pertsonak nahiz erakundeek 'Mekna' interes sozialeko adierazpena eska dezaten. Haren bidez, finantzaketa pribatua eskuratzeko eskubidea ematen die [Kultur Mezenasgoaren Foru Legearen](#) eta [Foru Komunitateko haren Pizgarri Fiskal](#)en bidez. Nafarroako Gobernuak sustatzen du, eta era honetako lehen araua da Espainian.



Mezenasgoko ekintzaz balia daitezke helbide fiskala Nafarroan duten pertsona fisikoak, eta beren jarduera artistikoak era ohikoan egiten dituztenak; zergari dagokionez Nafarroan helbideratutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak; Nafarroako egoitza, zentro eta etxeak, eta erakunde horietako federazioak; eliza katolikoa eta Espainiako Estatuarekin lankidetzak-akordioak sinatuta dituzten elizak edo erlijioak; Nafarroako administrazio eta unibertsitate publikoak eta mendekoak diren erakunde nahiz fundazioak.

Urtero adierazpena eskatzeko bialdi zabaltzen dira, urrian eta maiatzean eta, beraz, aurtengo urrira arte bereizgarri hori berriz eskuratzeko aukera gehiago ez da izango.

Ekimenak Nafarroako Kultura Kontseiluak ebaluatuko ditu, eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuari dagokion adierazpena proposatuko dio.

Kultur proiektuetarako ekimen pribatuak areagotzeko asmoz, Kultur Mezenasgoaren Foru Legeak pizgarri fiskalak hartzen ditu barnean; % 80 rainokoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) eta % 30 erainokoa Sozietate Zergan. Enpresen kasuan, gainera, ekarpenak partida kengarria izango du eta, hortaz, dohaintzaren irabazia emandakoaren %

50 inguru izango da.

Kultur mezenasgoan interesatutako pertsonak prozeduren eta baldintzen gaineko oinarrizko informazioa ondorengo web-orrian topa dezakete: [www.mecna.es](http://www.mecna.es).